

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

5897

AGINDUA, 2019ko abenduaren 17koa, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuarena; honen bidez, 2020. urtean Gizarte Larrialdietarako Laguntzetako gastu espezifiko bakoitzeko gehienez eman daitezkeen diru-kopuruak eta laguntza horietarako ezarritako kredituak banatzeko irizpideak finkatzen dira; eta, horretaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko, udal eta mankomunitate bakoitzarentzat 2020. urterako aurrekontu-mugak finkatzen dira.

Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak honako baliabide hauek arautzen ditu: bazterkeria-arriskua prebenitzekoak, bazterkeria pertsonala nahiz gizarte-eta lan-arloko bazterkeriako egoerak arintzekoak, eta herritarren gizarte-eskubideak benetan baliatzeko behar adina baliabide pertsonal, sozial edo ekonomikorik ez dutenen gizarteratzea erraztekoak. Horien artean, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) daude.

«Larrialdirako laguntza» kontzeptuaren funtsa, hain zuzen ere, une jakin batean (denbora-epea) eta norberaren borondateaz besteko edo aparteko arrazoiak eraginda sortutako baliabide ekonomikorik gabeko edo gutxiko egoera artatzeko premia larria da. Egoera horiek estaldura baten beharra dute, herrialdean dagoen ongizate-mailarekin eta EAEko diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazio-estaldurak ezartzen dituen gehieneko mugetan ezarritakoarekin bat datorren bizimodua eramateko.

Ezusteko gertaera batek edo aldizkako prestazio ekonomikoen ondoriozko baliabide ekonomiko urriek sortutako larrialdiko egoera ekonomikoak estaltzean datza. Egoera horiek une jakin batean gerta daitezke edo une ezberdinetan, pertsonaren bizitzako denboraldi luzeetan. GLLak premiazko gabezia eta gabetasunak biltzen dituzten egoerak saihesteko baliabide aringarri modura erabiltzen dira.

Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 49. artikuluan ezartzen dira gizarte-larrialdietarako laguntzen zenbatekoa zehazteko kontuan hartu beharreko irizpideak. Zehazki, 1. paragrafoan dago jasota inoiz ere gainditu ezin izango den kopuruetariko bat, hau da, aurreikusten den gastu berezi bakoitzeko araudi bidez gehienez finkatutako diru-kopurua. Legean jasotzen den aurreikuspen horretan oinarrituz, gizarte larrialdietarako laguntzak arautzen dituen urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuak 9. artikuluan xedatzen du urtero ezarriko direla gizarte-larrialdietarako laguntza gisa urte bakoitzean gehienez emango diren diru-kopuruak, agindu bidez ezarri ere.

Laguntza horiek, edozein kasutan ere, oinarrizko gizarte zerbitzuek benetako premia-egoera dagoela eta helburu horretarako kontsignatutako kreditua ere badagoela konprobatu eta gero emango dira, abenduaren 23ko 18/2008 Legeko 50.1 artikulua xedatzen duenari jarraituz.

Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko 2020. urteko Aurrekontu Orokorren aurreproiektuaren arabera, bada laguntza horietara zuzendutako ordainketa-kreditu bat, 23.000.000 eurokoa, eta Agindu honetan hori esleitzen da.

2020ko ekitaldi-hasieratik, behar duten pertsonen ahalik eta eperik motzenez arreta emateko, arau honen izapidetze aurreratua eratuko da, azken xedapenetatik lehenengoan ezarritako legeko baldintzapean.

Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 88.d) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko udalen eginkizuna da laguntza horiek onartu, ukatu eta ordaintzea, eta horretarako aurretik jakin beharra daukate baimendutako gastuaren urteko muga, betiere aurrekontu-ekitaldi bakoitzean horretara bideratutako osoko aurrekontu-xedapenen barruan.

Gizarte larrialdietarako laguntzak arautzen dituen Dekretu arautzaileak ezartzen du programari esleitutako urteko baliabideak udalei banatzeko eta transferitzeko prozedura. Baliabideen banaketa printzipio hauetan oinarritzen da:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan urtero esleituko dira GLLen zenbatekoak finantzatzeko beharko diren baliabide ekonomikoak.

b) Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordeak aztertu ondoren, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko eskumena daukan Eusko Jaurlaritzaren sailak zehaztuko ditu, urtero, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan gizarte larrialdietarako laguntzak ordaintzeko dagoen dirua erkidego barruko lurralde historikoen eta udalerrien artean nola banatuko den zehazteko irizpideak; batik bat, beharren adierazleei begira zehaztu beharko ditu.

c) Aipatu irizpide horiek aplikatuta, gaian eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailak ezarriko du udal bakoitzari dagokion aurrekontu-muga, eta urtero muga horiek ezarri ematen duen Agindua EHAAen argitaratuko da.

d) Eusko Jaurlaritzan gizarte zerbitzuetako eskumena daukan sailak, aipatutako irizpide horiek aplikatuta eta udal bakoitzari dagokion aurrekontuaren muga zehaztu ondoren, udal bakoitzari transferituko dio dagokion izendapena. Transferentziak hiru hilez behin egingo dira.

e) Eusko Jaurlaritzan aurrekontu-ekitaldia ixten denean, udal bakoitzari dagozkion kopuru guztiak erregulatu beharko dira behin betiko, aurrekontu-ekitaldi horretan laguntzak emateko benetan hartutako ebazpenetan oinarrituta, eta kontuan hartuz, horretarako, udalek bidalitako dokumentazioa.

Prozedura hori aplikatuz, banaketarako irizpideak eta aurrekontuen gehieneko zenbatekoak ezarri dituzten Aginduak argitaratu ditu Sail honek urtero.

Gizarte larrialdietarako laguntzetara zuzenduak diren diru-baliabideak Eusko Jaurlaritzak banatuko dizkie udalei, non eta horiek, urtarrilaren 17ko 16/2017 Dekretuak erantsitako bigarren xedapen gehigarriak dioenari jarraituz, ez badute horretarako beste prozeduraren bat adostu beren foru aldundiekin edo mankomunitateen bitartez. Dekretu horrek aldatu egiten du gizarte larrialdietarako laguntzen Dekretua, eta udalaz gaindiko erakunde kudeatzaileen parte hartzea aurreikusten du, GLLak kudeatzen dituzten mankomunitate eta foru aldundiei laguntzak zuzenean ordaintzeko aukera onartzen dielarik, udalek, dela mankomunitateen bidez dela Aldundiaren prestazio eskuordetuez baliatuta, kudeaketa partekatuko formularen alde egiten duten kasuetan.

Bukatzeko, gizarte larrialdietarako laguntzak arautzen dituen Dekretuak ahalmena ematen dio Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuari Dekretua garatu eta gauzatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da gizarte larrialdietarako laguntzetan (GLL) bildutako gastu espezifikoko bakoitzari 2020ko ekitaldian orokorrean eman beharreko gehieneko zenbatekoak finkatzea, eta

laguntza horiek emateko esleitutako kredituak hainbat udalerriren artean banatzeko irizpideak ezartzea. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko eta udal bakoitzari urte honetan dagokion aurrekontu-muga zehazten da.

2. artikulua.– Urteko gehieneko diru-zenbatekoak.

1.– 2020. urtean, Gizarte Larrialdietarako Laguntzen gehieneko zenbatekoak, Bizikidetzaren Unitate (hemendik aurrera, BU) bakoitzeko eta aurreko artikuluan aipatzen diren gastu espezifiko bakoitzerako, honako hauek dira:

a) Alokairu gastuengatik:

a.1.– Errentari bakarreko etxebizitzaren kasuan, edo GLLa eskatu duen BU bakar batek beste batekin alokairuan hartu badu edo beste bati alokairuan utzi badio, gehieneko laguntza 250 eurokoa izango da hilean, eta ezingo du gainditu etxebizitzaren alokairu-prezioaren edo beste batekin batera alokairuan hartzeagatik edo beste bati alokairuan emateagatik ordaindutako % 70.

a.2.– Etxebizitzan maizter bat baino gehiago badago edo azpierreantak egin badira, ez dira bi eskaera baino gehiago onartuko, indarrean den araudiak xedatzen duenarekin bat etorriz, eta bizikidetzaren unitatearen kopuruarekin zatituko da. Bi bizikidetzaren unitaterentzat ezarritako muga hileko 125 euro izango da, baina biak batuta ezingo dute etxebizitzaren alokairu-prezioaren % 80 gainditu.

a.3.– Etxebizitzan ostatu- edo apopilotza-kontraturik egonez gero, kontratu mota hori duen eskatzaile kopuruaren muga bi izango da, aurrekoarekin koherente izanik, eta laguntzaren muga hileko 125 euro izango da.

a.4.– Legez eraturako hotel, hotel-apartamentu eta pentsioetan bizi direnen kasuan, muga 250 euro izango da hileko. Kasu horretan, BUren muga ez da bi izango, establezimenduan legez onartutako gehieneko gela kopuruaren arabera izango da.

b) Gizarte larrialdiko egoera baino lehenagoko etxebizitza edo bizitokia erosteko kredituen interesen eta amortizazioaren gastuengatik, 250 euro gehienez hileroko, ezingo delarik da kredituaren hileroko interesen edo amortizazioaren zenbatekoaren % 70 gainditu.

c) Energia-gastuengatik, argindar-, gas- edo etxerako beste erregai-horniketa batzuek eraginak, gehienez 900 euro urtero. Bi BU baldin badira, urtero 450 euro bakoitzari.

d) «Linea zuriko» etxe-tresna elektrikoaren eta altzarien gastuak direla-eta, gehienez 1.850 euro urtero. Bi BU baldin badira, urtero 925 euro bakoitzari.

e) Etxebizitza konpontzeko, egokitzeko eta/edo oinarrizko instalazioak egiteko gastuak direla-eta, gehienez 1.850 euro. Bi BU baldin badira, bakoitzari gehienez 925 euro urtean.

f) Ohiko etxebizitza edo bizilekua izan eta mantentzeko beharrezkoak diren beste gastu batzuek, 900 euro gehienez urtean. Bi BU baldin badira, urtero 450 euro bakoitzari. Kontzeptu honetan sartzen dira uraren, zaborraren eta estolderiaren gastuak eta hiri- zein landa-eremuko ondasun higiezinaren gaineko zergari dagozkionak, jabe-kideen erkidegoaren kuotatik eratorritako gastuak, bai eta etxebizitzaren segurtasunarekin lotutakoak ere.

g) Bizikidetzaren unitateko kide batek edo gehiagok dituzten oinarrizko premiei buruzko gastuak, esate baterako: jantziak, hezkuntza eta prestakuntzakoak eta osasun-arretakoak, betiere sistema publikoek ez badituzte gastu horiek estaltzen, urtero gehienez 1.850 euro.

h) Aurretiaz egindako zorpetze-gastuengatik, 3.000 euro gehienez urtean. Bi BU baldin badira, urtero 1.500 euro bakoitzari.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa alde batera utzi gabe, a), b), c), d), e), f) eta g) idatzi-zatietan aipatutako kontzepturen batengatik lehendik sortu zorreatiko gastuak direla-eta urtean gehienez ezar daitezkeen diru-kopuruak ezin izango dira, kasu bakoitzean, aipatu idatzi-zatietan kontzeptu horietarako aurreikusitako gehieneko zenbatekoak baino handiagoak.

2.– Dena dela, artikuluko honetako 1. paragrafoko a), b), c), d), e) eta f) idatzi-zatietan aipatzen diren kontzeptuei dagozkien GLLak ez dira bateragarriak Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO, aurrerantzean) jasotzearekin, Etxebizitzarako Laguntza Ekonomikoarekin (ELE, aurrerantzean). Azken hau ekainaren 18ko 3/2015 Legeak, Etxebizitzari buruzkoak, aurreikusita duen etxebizitza bat izateko eskubide subjektiboa asetzerazuzendua da, eta ezta ere Gaztelagun izeneko programaren laguntza, 2018ko abenduaren 18ko Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburuaren Aginduak ezartzen duena: etxebizitzaren alokairurako Gaztelagun programaren laguntzak arautzen dituen eta deialdia egiten duena.

Lehenengo paragrafoko a) idatzi-zatian adierazitako gastuetarako jasotzen den GLLa, halaber, ez da bateragarria Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (aurrerantzean, DBE) jasotzearekin, edozein modalitateetan izanik ere.

3.– Eskabide bakoitzean emango den diru-zenbatekoa ehuneko bat aplikatuta kalkulatu da, honako hauek aintzat hartuta: eskatzailearen nahiz haren bizikidetz-unitateko gainerako kideen diru-sarrerak, eta unitatea osatzen duen kide kopurua. Ehuneko hori, artikuluko honetan kontzeptu bakoitzarako ezartzen den gehieneko zenbatekoaren gainean aplikatu da, edo benetako gastuaren zenbatekoaren gainean, baldin eta zenbateko hori kontzeptuko gehieneko kopuruaren txikiagoa bada, betiere Gizarte larrialdietarako laguntzak arautzen dituen Dekretuko 10.2 artikuluan xedatzen denari jarraituz. Kalkulua egiteko behar diren bi taulak I. eranskinean daude: oro har herritarrei dagokiena, bata, eta pentsiodunei aplikatzekoa, bestea.

4.– Kasu partikular bakoitzean aplika daitezkeen zenbatekoa udal eskudunak murriztu beharko du, dauden aurrekontu-baliabideak kontuan hartuta; halakoetan, kontzeptu bakoitzarengatik eman daitezkeen gehieneko zenbatekoa eskatzaile guztien eskaerari modu berean erantzuteko udalaren ustez nahikoa den ehuneko negatiboan murriztu beharko da.

3. artikulua.– Eskaera-pilaketa, eta GLLak eska ditzaketan BUen gehieneko kopurua.

Etxebizitza batean, gehienez, bi Bizikidetz Unitatek eskatu ahal izango dituzte Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioak (GLLak barne). Hortaz, zenbaketa hori egiteko, sistemaren edozein prestazio kobratzeko sortu diren BUak hartuko dira kontuan: DBE, EPO edo GLLak berak, baina lehentasuna izango du zuzenbideko prestazioak –alegia, DBE eta EPO– jasotzeak.

GLLren bi eskaera baino gehiago pilatuz gero, eskaeraren antzinatasunaren arabera artatuko dira, dagozkien gizarte zerbitzuek txosten sozialaren bidez bestelako irizpiderik finkatu ezean.

4. artikulua.– Kredituak banatzeko irizpideak.

1.– Gizarte Larrialdietarako Laguntzak ematera bideratutako kredituak Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien artean banatzeko irizpideak, nagusiki, premia-adierazleei jarraituz finkatuko dira. Hala, 2020. urtean honako parametro hauen arabera ezarriko dira irizpideok:

– Udalerrian, 2019ko irailaren 30ean, zenbat unitatek jasotzen zuten Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta.

– Udalerrian, 2019ko irailaren 30ean, zenbat ziren diru-sarrerak Bermatzeko Errenta edo bestelako prestaziorik jaso ez eta Lanbiden izena emanda zeudenak.

2.– Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, 400 biztanletik beherako udalerrri guztiei Gizarte Larrialdietarako Laguntzaren programa gauzatzeko gutxieneko diru-zenbateko bat bermatuko zaie, horrelako udalerrrien multzoari dagokion batez besteko zenbatekoaren parekoa.

5. artikulua.– Aurrekontu-mugak.

4. artikuluan adierazitako irizpideak aplikatuta, ezarri da 2020an Euskal Autonomia Erkidegoko udal bakoitzak Gizarte Larrialdietarako Laguntza programa gauzatzeko zenbat diru erabil dezakeen aurrekontuetan. Agindu honen II. eranskinean ageri dira zenbatekoak.

6. artikulua.– Banaketa udalaz gaindiko beste erakunde batzuen bidez egitea.

Gizarte larrialdietarako laguntzen diru-baliabideak foru aldundien bitartez edo partzuergo eta mankomunitateekin partekatutako kudeaketa-formulaz hala nola bestelako formulen bitartez jasotzeko akordioa duten udalek horren berri eman beharko diote Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari, udal bakoitzari esleitutako zenbatekoak udalaz gaindiko erakunde horiei transferitzeko.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituen Dekretuko 33. artikuluan aipatzen diren datuen bidalketa, Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Informazio Sistemaren funtzionamendua araututa ez dagoen bitartean, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2004ko urriaren 8ko Aginduan ezarritako moduan egingo da. Agindu horren bidez, argitara eman zen Gizarte Larrialdietarako Laguntzen eskabide-eredu berria, eta prestazio horiei buruzko dokumentazioa euskarri informatikoan bidaltzeko modua arautu zen (2004ko azaroaren 17ko EHAA, 220. zk.). Bestela, datuak bidali daitezke aipatu aginduan ezarritakoa ordezkatzeko duen euskarri informatiko estandarizatuaren bitartez, diru-sarrerak bermatzearen eta gizarteratzearen arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak zehazten duen moduan, eta betiere datuen edukiari buruz aipatutako 33. artikuluan ezartzen diren baldintzak betez.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– 2007ko apirilaren 26ko Aginduak, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espeditentak aurretiaz izapidetzea arautzen du. Agindu horren 5.3 artikulua ezarritakoa kontuan izateko, Agindu honen laguntzak ez dira emango kreditu egokia edo nahikoa egotearen baldintza bete arte.

Bigarrena.– Agindu honek 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 17a.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.

2019ko abenduaren 30a, astelehena

I. ERANSKINA

Orokorra 2020			
Urteko diru-sarreren eta BUren kide-kopuruen arabera			
Kide-kop.	1	2	3 edo gehiago
%	731,61	939,44	1.039,21
100	8.779,32	11.273,28	12.470,52
99	8.867,11	11.386,01	12.595,23
98	8.954,91	11.498,75	12.719,93
97	9.042,70	11.611,48	12.844,64
96	9.130,49	11.724,21	12.969,34
95	9.218,29	11.836,94	13.094,05
94	9.306,08	11.949,68	13.218,75
93	9.393,87	12.062,41	13.343,46
92	9.481,67	12.175,14	13.468,16
91	9.569,46	12.287,88	13.592,87
90	9.657,25	12.400,61	13.717,57
89	9.745,05	12.513,34	13.842,28
88	9.832,84	12.626,07	13.966,98
87	9.920,63	12.738,81	14.091,69
86	10.008,42	12.851,54	14.216,39
85	10.096,22	12.964,27	14.341,10
84	10.184,01	13.077,00	14.465,80
83	10.271,80	13.189,74	14.590,51
82	10.359,60	13.302,47	14.715,21
81	10.447,39	13.415,20	14.839,92
80	10.535,18	13.527,94	14.964,62
79	10.622,98	13.640,67	15.089,33
78	10.710,77	13.753,40	15.214,03
77	10.798,56	13.866,13	15.338,74
76	10.886,36	13.978,87	15.463,44
75	10.974,15	14.091,60	15.588,15
74	11.061,94	14.204,33	15.712,86
73	11.149,74	14.317,07	15.837,56
72	11.237,53	14.429,80	15.962,27
71	11.325,32	14.542,53	16.086,97
70	11.413,12	14.655,26	16.211,68
69	11.500,91	14.768,00	16.336,38
68	11.588,70	14.880,73	16.461,09
67	11.676,50	14.993,46	16.585,79
66	11.764,29	15.106,20	16.710,50
65	11.852,08	15.218,93	16.835,20
64	11.939,88	15.331,66	16.959,91
63	12.027,67	15.444,39	17.084,61
62	12.115,46	15.557,13	17.209,32
61	12.203,25	15.669,86	17.334,02
60	12.291,05	15.782,59	17.458,73

2019ko abenduaren 30a, astelehena

Orokorra 2020			
Urteko diru-sarreraren eta BUren kide-kopuruen arabera			
Kide-kop.	1	2	3 edo gehiago
59	12.378,84	15.895,32	17.583,43
58	12.466,63	16.008,06	17.708,14
57	12.554,43	16.120,79	17.832,84
56	12.642,22	16.233,52	17.957,55
55	12.730,01	16.346,26	18.082,25
54	12.817,81	16.458,99	18.206,96
53	12.905,60	16.571,72	18.331,66
52	12.993,39	16.684,45	18.456,37
51	13.081,19	16.797,19	18.581,07
50	13.168,98	16.909,92	18.705,78

Pentsiodunak 2020			
Urteko diru-sarreraren eta BUen kide-kopuruen arabera			
Kide-kop.	1	2	3 edo gehiago
%	839,40	1.049,25	1.133,19
100	10.072,80	12.591,00	13.598,28
99	10.173,53	12.716,91	13.734,26
98	10.274,26	12.842,82	13.870,25
97	10.374,98	12.968,73	14.006,23
96	10.475,71	13.094,64	14.142,21
95	10.576,44	13.220,55	14.278,19
94	10.677,17	13.346,46	14.414,18
93	10.777,90	13.472,37	14.550,16
92	10.878,62	13.598,28	14.686,14
91	10.979,35	13.724,19	14.822,13
90	11.080,08	13.850,10	14.958,11
89	11.180,81	13.976,01	15.094,09
88	11.281,54	14.101,92	15.230,07
87	11.382,26	14.227,83	15.366,06
86	11.482,99	14.353,74	15.502,04
85	11.583,72	14.479,65	15.638,02
84	11.684,45	14.605,56	15.774,00
83	11.785,18	14.731,47	15.909,99
82	11.885,90	14.857,38	16.045,97
81	11.986,63	14.983,29	16.181,95
80	12.087,36	15.109,20	16.317,94
79	12.188,09	15.235,11	16.453,92
78	12.288,82	15.361,02	16.589,90
77	12.389,54	15.486,93	16.725,88
76	12.490,27	15.612,84	16.861,87
75	12.591,00	15.738,75	16.997,85
74	12.691,73	15.864,66	17.133,83
73	12.792,46	15.990,57	17.269,82

Pentsiodunak 2020			
Urteko diru-sarreraren eta BUen kide-kopuruen arabera			
Kide-kop.	1	2	3 edo gehiago
72	12.893,18	16.116,48	17.405,80
71	12.993,91	16.242,39	17.541,78
70	13.094,64	16.368,30	17.677,76
69	13.195,37	16.494,21	17.813,75
68	13.296,10	16.620,12	17.949,73
67	13.396,82	16.746,03	18.085,71
66	13.497,55	16.871,94	18.221,70
65	13.598,28	16.997,85	18.357,68
64	13.699,01	17.123,76	18.493,66
63	13.799,74	17.249,67	18.629,64
62	13.900,46	17.375,58	18.765,63
61	14.001,19	17.501,49	18.901,61
60	14.101,92	17.627,40	19.037,59
59	14.202,65	17.753,31	19.173,57
58	14.303,38	17.879,22	19.309,56
57	14.404,10	18.005,13	19.445,54
56	14.504,83	18.131,04	19.581,52
55	14.605,56	18.256,95	19.717,51
54	14.706,29	18.382,86	19.853,49
53	14.807,02	18.508,77	19.989,47
52	14.907,74	18.634,68	20.125,45
51	15.008,47	18.760,59	20.261,44
50	15.109,20	18.886,50	20.397,42

I. eranskineko taulen azalpena:

- Elkarbizitzako kide-kopuruari dagokio zutabe bakoitza: bat, bi, hiru edo gehiago.
- Hiru zenbaki horien azpian jasota dago inongo sarrerarik ez duen unitate bati legokiokoen DSBEren hileroko zenbatekoa, Sarrerak bermatzeko 18/2008 Legearen 20. artikulua arabera.
- Hurrengo lerroan, DSBEren urteko zenbatekoa.
- Hurrengo lerroetan ageri da, progresiboki, urteko zenbatekoaren % 101, % 102... % 150 arte. Azken horrek markatzen du laguntzak jasotzeko eskubidearen muga.
- Azkenik, hasierako zutabeak adierazten du egoera bakoitzean eman litekeen GLL kontzeptu bakoitzari dagokion gehieneko zenbatekoaren ehunekoa AES.

II ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE HISTORIKO ETA UDAL BAKOITZARENTZAT
2020RAKO FINKATUTAKO AURREKONTU-MUGA

Araba/Álava	
Udalerría	2020ko esleipena
Agurain/Salvatierra	58.435
Alegria-Dulantzi	25.666
Amurrio	114.579
Añana	1.430
Aramaio	5.729
Armiñón	1.604
Arraia-Maeztu	3.667
Arratzua-Ubarrundia	4.812
Artziniega	19.020
Asparrena	14.208
Ayala/Aiara	19.708
Baños de Ebro/Mañueta	1.430
Barrundia	3.437
Berantevilla	2.062
Bernedo	2.750
Campezo/Kanpezu	6.875
Elburgo/Burgelu	2.292
Elciego	8.021
Elvillar/Bilar	1.833
Erriberagoitia/Ribera Alta	3.896
Harana/Valle de Arana	1.430
Iruña Oka/Iruña de Oca	25.895
Iruñaiz-Gauna	1.604
Kripan	1.430
Kuartango	2.979
Labastida/Bastida	16.041
Lagrán	1.430
Laguardia	8.250
Lanciego/Lantziego	8.021
Lantarón	3.667
Lapuebla de Labarca	9.396
Laudio/Llodio	179.890
Legutio	19.937
Leza	1.430
Moreda de Álava/Moreda Araba	2.292
Navaridas	1.430
Okondo	11.000
Oyón-Oion	52.248
Peñacerrada-Urizaharra	1.430

2019ko abenduaren 30a, astelehena

Araba/Álava	
Udalerría	2020ko esleipena
Ribera Baja/Erribera Beitia	8.479
Samaniego	1.430
San millan/Donemiliaga	2.979
Urkabustaiz	12.833
Valdegovía/Gaubea	8.021
Villabuena de Álava/Eskuernaga	1.430
Vitoria-Gasteiz	2.913.065
Yecora/Iekora	1.604
Zalduondo	1.430
Zambrana	3.437
Zigoitia	7.791
Zuia	11.687

2019ko abenduaren 30a, astelehena

Gipuzkoa	
Udalerría	2020ko esleipena
Abaltzisketa	1.430
Aduna	1.430
Aia	10.541
Aizarnazabal	5.271
Albiztur	1.430
Alegia	16.270
Alkiza	1.604
Altzaga	1.430
Altzo	2.979
Amezketá	7.562
Andoain	116.871
Anoeta	16.729
Antzuola	9.625
Arama	1.430
Aretxabaleta	38.499
Arrasate/Mondragon	186.077
Asteasu	9.396
Astigarraga	43.082
Ataun	5.958
Azkoitia	94.413
Azpeitia	108.621
Baliarrain	1.430
Beasain	93.038
Beizama	1.430
Belauntza	1.430
Berastegi	3.896
Bergara	91.893
Berrobi	4.125
Bidania-Goiatz	2.979
Deba	31.853
Donostia / San Sebastián	1.512.677
Eibar	316.239
Elduain	1.430
Elgeta	5.041
Elgoibar	100.601
Errenteria	390.028
Errezil	3.667
Eskoriatza	23.374
Ezkio	2.750
Gabiria	1.430
Gaintza	1.430
Gaztelu	1.430
Getaria	13.750
Hernani	170.952

2019ko abenduaren 30a, astelehena

Gipuzkoa	
Udalerría	2020ko esleipena
Hernialde	1.430
Hondarribia	108.163
Ibarra	40.332
Idiazabal	10.312
Ikaztegieta	5.729
Irun	648.519
Irura	12.145
Itsaso	1.430
Itsasondo	7.333
Larraul	1.430
Lasarte-Oria	136.120
Lazkao	28.645
Leaburu	3.208
Legazpi	57.748
Legorreta	9.625
Leintz-Gatzaga	1.430
Lezo	49.498
Lizartza	3.437
Mendaro	15.124
Mutiloa	1.430
Mutriku	41.249
Oiartzun	59.810
Olaberria	5.500
Oñati	50.644
Ordizia	84.101
Orendain	1.430
Orexa	1.430
Orio	42.853
Ormaiztegi	9.625
Pasaia	192.722
Segura	5.729
Soraluze-Placencia de las Armas	50.186
Tolosa	145.974
Urnieta	41.019
Urretxu	52.707
Usurbil	39.874
Villabona	56.144
Zaldibia	8.479
Zarautz	134.287
Zegama	5.958
Zerain	1.430
Zestoa	31.624
Zizurkil	25.666
Zumaia	63.706
Zumarraga	102.892

2019ko abenduaren 30a, astelehena

Bizkaia	
Udalerría	2020ko esleipena
Abadiño	54.769
Abanto y Ciervana-Abanto Zierbena	119.163
Ajangiz	1.430
Alonsotegi	41.936
Amorebieta-Etxano	150.786
Amoroto	1.430
Arakaldo	1.604
Arantzazu	2.750
Areatza	11.000
Arrankudiaga	6.416
Arratzu	2.062
Arrieta	2.979
Arrigorriaga	120.079
Artea	4.354
Artzentales	9.396
Atxondo	7.791
Aulesti	2.750
Bakio	24.291
Balmaseda	119.621
Barakaldo	1.261.060
Barrika	14.208
Basauri	507.587
Bedia	9.625
Berango	57.290
Bermeo	187.681
Berriatua	6.187
Berriz	33.686
Bilbao	4.974.577
Busturia	16.270
Derio	41.478
Dima	8.250
Durango	235.575
Ea	6.646
Elantxobe	3.667
Elorrio	37.353
Erandio	292.407
Ereño	2.521
Ermua	153.078
Errigoiti	3.437
Etxebarri	88.455
Etxebarria	6.187
Forua	8.250
Fruiz	5.500
Galdakao	217.013

2019ko abenduaren 30a, astelehena

Bizkaia	
Udalerría	2020ko esleipena
Galdames	8.937
Gamiz-Fika	11.458
Garai	1.430
Gatika	10.770
Gautegiz Arteaga	7.104
Gernika-Lumo	141.849
Getxo	687.705
Gizaburuaga	1.430
Gordexola	16.499
Gorliz	56.144
Güeñes	90.518
Ibarrangelu	4.125
Igorre	41.249
Ispaster	5.958
Iurreta	32.999
Izurtza	2.750
Karrantza Harana/Valle de Carranza	43.311
Kortezubi	1.430
Lanestosa	3.667
Larrabetzu	11.229
Laukiz	8.250
Leioa	327.009
Lekeitio	51.561
Lemoa	34.145
Lemoiz	11.916
Lezama	17.187
Loiu	11.687
Mallabia	5.271
Mañaria	3.667
Markina-Xemein	31.853
Maruri- Jatabe	5.729
Meñaka	2.521
Mendata	1.833
Mendexa	2.062
Morga	2.979
Mundaka	11.916
Mungia	166.828
Munitibar -Arbatzegi Gerrickaitz-	2.521
Murueta	1.430
Muskiz	97.392
Muxika	8.708
Nabarniz	1.833
Ondarroa	74.477
Orozko	20.395

2019ko abenduaren 30a, astelehena

Bizkaia	
Udalerría	2020ko esleipena
Ortuella	109.309
Otxandio	8.250
Plentzia	44.228
Portugalete	573.355
Santurtzi	695.720
Sestao	484.212
Sondika	36.895
Sopelana	120.537
Sopuerta	19.937
Sukarrieta	3.208
Trucios-Turtzioz	8.021
Ubide	1.430
Ugao-Miraballes	40.103
Urduliz	36.207
Urduña/Orduña	48.811
Valle de Trapaga-Trapagaran	130.850
Zaldibar	26.582
Zalla	112.746
Zamudio	25.207
Zaratamo	16.041
Zeanuri	5.041
Zeberio	8.479
Zierbena	14.895
Ziortza-Bolibar	2.521